

ERASMUS EGONALDI TXOSTENA

Ikaslea: Maialen Azcona

Urtea: 2022-2023 ikasturtea, lehenengo lauhilabetea

Lekua: Thessaloniki, Grezia

Unibertsitatea: Aristotle University of Thessaloniki (AUTH)

Aurten Thessalonikin egon aniz, Greziako iparraldean dagoen hiri bat. Nire egonaldia orokorrean oso ondo egon da, hala ere bere alde onak eta txarrak izan ditu.

Lehendabizi hiria, Thessaloniki espainiarekin konparatuta nahiko zaharkituta dago. Kaleak, eraikinak, unibertsitatea... dena erdi apurtuta dirudi. Horregatik lehenengo kontaktua pixkat bitxia izan zen, baina pare bat astetan ohitu egiten zara, nik gustua hartu nion. Honetaz aparte, kotxeak oso arriskutsiak dira, oso gaizki gidatzen dute eta semaforoak ez dituzte beti errespetatzen, alde horretatik kontu handia izan behar da. Gero ere, hiriak ez du Grezia klasikoko gauza gehigearik bisitatzeko, baina badaude leku oso politak, eta aisialdi eskaintza oso anitza dauka. Laburbilduz, niri azkenean asko gustatzne zait Thessaloniki, ikaslea izateko primerakoa da.

Ondoren unibertsitatea, kontuz ibili behar da aukeratutako ikasgaiekin, haien orrian ledean ingelesez ematen direla jarri arren, hara heltzea hori egia ez izatea gertatu daiteke. Hau gertatzen bada, irakasleekin hitz egin behar da, batzuk klaseak ingelesez ematen hasiko dira eta beste batzuk lanak bidaliko dituzte eta haien tutoretza orduetan emango dute klase erasmus ikasleentzat. Hala ere, unibertsitateko maila nahiko ona da, eta irakasgai batzuk zailak izan daitezke. Laburbilduz, zu arduratu behar zara zure irakasgaiak bilatzen, zure irakasleak bilatzen eta haiekin hitz egiten ahal bezain laster.

Azkenik aholkuak;

- Bizilekua aurkitzea ez da zaila, baina denbora nahiko eman behar da bilatzen, eta kontuz ibili behar da prezioekin eta kokapenarekin
- Unibertsitateko gestioak egitea oso motela eta laberintikoa da, batzuetan jendea jatorra da eta lagundu egiten dute, beste batzuetan ez. Izan astuna, joan 18 aldiz jendearekin hitz egitera kasu egin arte
- Batzutan irakasleek ez dituzte emailak erantzuten, joan haien bila kasu egin arte
- Erabilgarriak izan daitezkeen aplikazio batzuk: Google Lensa (grekera itzultzeko), moovit (autobusak noiz pasatzen diren ikusteko, batzutan ez doa ondo baina google mapsek ez du autobusen informaziorik), Spigotos (pisua bilatzeko, batzutan ez dute erantzuten)

Espero dut hau baliagarria izatea